


#ElkarlanKulturak

Kultura Kontsumo Arduratsuaren ikuspegitik
Cultura desde el Consumo Responsable



SARETUZ

Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaile Sarea
 Red de Consumo Consciente, Responsable y Transformador de Donostia



Aitortu - Ez merkatarizarako - Partekatatu baimen beraren arabera 3.0

Material hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin da banatu. Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

- Zuzendaritza teknikoa ▶ Saretuz Sarea. Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzailea.
- Argitalpenaren koordinazioa ▶ Saretuz Sarea.
- Testuak ▶ Fundación Cristina Enea Fundazioa
Gabilta Gipuzkoako Artisanu Biltzarra
Markel Ormazabal



SARETUZ

Donostiako Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaile Sarea
Red de Consumo Consciente, Responsable y Transformador de Donostia

Saretuz Sareko lan taldea:

AntiguaOttarrak, Calcuta Ondoan, Donostiako Bidezko Merkataritza taldea, Emaús Gizarte Fundazioa, Fiare Banka Etikoa, Fundación Cristina Enea Fundazioa, Gabilta, Goiener, Mugarik Gabe, Mugarik Gabeko Ekonomilariak, Nortlan, Oikocredit, Setem Hego Haizea, VSF Herrien Bidezko Elikadura eta Ximaurpila.

Saretuz sarean aurrera eramandako #ElkarlanKulturak prozesuko emaitza dugu aldizkari hau. Berau Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoari esker argitaratua izan da



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzeta Bulegoa
Negociado de Cooperación

#ElkarlanKulturak

Zergatik hitz egiten dugu #ElkarlanKulturak honetaz?

“Sarea egitea erdigunea hustutzea eta muturrekoen adimena eta autonomia aitortzea da. Sarea egitea beste pertsonak elkar harremanetan jartzea, ezezagunekin eta ezberdinekin elkarlanean aritzea da. Sarea egitea prozesuak, ez soilik emaitzak, partekatzea eta gainontzekoen ekarpenak aitortzea da. Sarea egitea, azken finean, eskuzabala izatea da, baina ez soilik zure soka berdinekoekin, %99arekin baizik.”

Marga Padilla

Saretuz sarean 2016 urtean zehar “**elkarlaneko kulturaren**” inguruan eta kontsumoarekin duen erlazioaren inguruan lanean jardun gara. Beste hainbat kolektiboren iritzia jakin nahi genuen, Saretik sustatzen ari ginen kultura motaren inguruan arakatu, eta benetan nahi genuen hori ordezkatzeko zuela aztertu. Hori horrela izanda, hirian antzekoak ziren alternatiba kulturalak aztertu genituen eta poliki-poliki Saretuz-etik zein motatako gizartea sustatzen ari garen, zein diren gizarte horretako protagonistak bezalako galderei erantzuna ematen joan ginen, baita nagusi den kontsumismotik eta ekoizpen eta kontsumo globaleko eredutik (bidegabekeria eta desberdinkeria sortzailea) haratago doazen alternatiba asko eta asko horiek nola eman ditzakegun ikustera ere.

Zentzu honetan, Mapasaretuz.eus (mugikorreko aplikazioa eta web orria) gure lorpen handietako bat izan dela uste dugu; emakume eta gizonen kontsumo ohiturak eraldatzearen aldeko gure apustua irizpidez irizpide biltzen dituen aukeren kale-izendegi bat, Donostiako antzekoak diren denda eta zerbitzuak ikustera emanaz. Kale-izendegiak, beraz, pertsonen eta naturaren eskubideak errespetatzen dituen kontsumo alternatibak eskaintzen ditu.

Gutxienez, Mapasaretuz-en azaltzen diren zerbitzuekin eta dendekin sare-lana eta elkarren arteko lankidetzeta finkatu dugula uste dugu, baita sareko kolektibo aktiboekin ere. Era berean, gure ekintzen berrikuntzan sakontzea lortu dugu eta ondorioz, sortzen dugun eraginean. Bi norabideko gure intzidentziak, sare barrura eta kanpora, elkarlaneko lanaren bidean jarreraren eta portaeren eraldaketa sustatu du eta Donostian kontsumo kultura kontziente, arduratsu eta eraldatzaile baten bidean aurrera egitea sustatu du.

Hala ere, bidean hainbat galdera sortu zaizkigu: “baina, zein kultura mota sustatu nahi dugu benetan?”, “2011 urtetik aurrera burutzen ari garen lana, sustatzen dugun kultura motarentzat ekarpen baliotsua da”, “Argi dugu, kontsumo motak alda dadin eta pertsonen beste pertsonekin eta ingurumenarekin kontsumo arduratsuko irizpideak barnera ditzaten nahi dugu, baina, sortzen dugun kultura hori askea al da?”.

Saretuz bezala, praktikan jarri nahi ditugun balore hauek, kontsumo ohituretan eta bizitza ereduetan eraldaketa

lor dezaten, adin, jatorri eta behar desberdinak dituzten emakume eta gizonen inklusioa eta berdintasunaren alde egin behar dutela partekatzen dugu, tokiko errealitatean eta existitzen den interdependentzia globalean oinarritu behar dute, elkarlaneko lana balioan jarri, lan horren emaitzak garapen komunitarioari gehitzea egingo diola bermatuz, eta garrantzitsuenak, eskubideak dituzten pertsona subjektu politikoak izateak duen garrantzia.

Prozesu honetan pertsona protagonistak, proposatzen, kudeatzen, zuzentzen, lortzen eta erabakitzen duten horiek izango dira, eraldaketaren premisatik sakontasunean eragitea eta berritzea lortuko duten pertsonak.

Berdintasuna, eraldaketa eta lankidetzeta, Saretuz-en sustatu nahi dugun identitate kulturalaren parte dira eta Mapasaretuz-eko zerbitzuek eta dendek, nolabait, identitate hori bera partekatzen dutela uste dugu.

Hasieran aipatzen genuen bezala, 2016 urtean zehar, “elkarlaneko kulturaren” inguruko gure posizionamenduan aurrera egiteko hainbat ate jo ditugu eta kolektibo eta pertsona askoren laguntza izan dugu: **Altekio, Faktoria Lila, GaraiON Naturgunea, Art For Life, KA, Pink Gorilaz, Donostiako Creative Commons Nazioarteko Zine Jaialdia** eta **Markel Ormazabal**.

Urte honetan gaiaren inguruan sakontzeko aukera izan dugu eta emaitza bezala, elkarlaneko kulturetan edo **#ElkarlanKulturak**-en oinarritutako aldizkari hau aurkezten dizuegu



KONTSUMOAREN KULTURATIK KULTURAREN KONTSUMORA

Kultura Kontsumo Arduratsuaren ikuspegitik solasaldia, 2016ko maiatzaren 26a. Ixiar García, Pink Gorillas, Ttala Lizarraga, Festival Internacional de Cine Creative Commons de Donostia eta Jokin Telleria, Kultura Alternatiboa, elkarteko lagunak mahaiaren inguruan elkartu, eta, "zer da kultura?" galdetu genion elkarri. Ekaina ate joka genuen, helduak ginen kasik urtearen ekuatorera; eta ondorioz, baita 2016arekin egokitu diguten Europako Kultura Hiriburu egitasmoaren erdibidera ere. Kulturaren hiriburu omen gara, edo ginen, kultura hitzarekin bete eta galgatu ditugu aho-belarriak, baina zer da Kultura?

Markel Ormazabal

Gure eguneroko hizkeran kultura kontzeptua, musika, antzerkia, jakintza eta gisako jardura artistiko eta intelektualei erreferentzia egiteko erabiltzen da. Baina bada gehiago ere. Kulturaren 60tik gora definizio egon daitezke, solasaldira elkartu ginen lagunak haina, eta gehiago. Nork berea kasik, hagineta minaren antzera. Eta hala, hiriburutzaren proiektuak antropologia hartu du makulu kulturaren definitzeko. Berria egunkarian egin zioten elkarrizketan hori azaltzen saiatu zen Xabier Paya bera, DSS2016.EUko Kultur Programako zuzendaria: "Natura berez gertatzen dena da, eta kultura, gizakiak egin duen gainerako guztia" edo "Gizatalde bat osatzeko, antolatzeke, elkar ulertzeko egon litezkeen balio, sinesmen, portaera, eta abar guztiek osatzen dutend" litzateke kultura.

Batzuentzat handiusteko erronka, ez gutxik kulturaren definizio zabalegia izatea egotzi diote hiriburutzari. Manuel Delgado antropologoa iragarle aritu zen Koldo Mitxelena Kulturunean, 2016 Desokupatu ekimenak antolatutako hitzaldian, 2015eko apirilaren 22an. "Kategoria abstraktuak hedatzen dituzte -kasu honetan kultura-, edozein esanahi har dezaketenak. Eta beraz, edozer gauza justifikatu" esan zuen. Eta behin eta berriz edukiz hustuta erabili ondoren, badirudi Donostia 2016ren kontra agertzea "kulturaren kontra" aritzearen parekoa dela. Logika sinplista, bai; baina oso zabaldua eta uste baino eraginkorragoa eztabaida publikoa baldintzatzeko.

Donostiako Piratak jai herrikoen aldeko mugimenduak erronkari eutsi zion hiriburutzaren hasiera ekitaldiekin batera ospatu Herri kulturen aldeko brindisean, urtarrilaren 23an:

"Mundua ulertzeko moduz ari da beraz -DSS.2016. EU proiektua-, mundu-ikuskeraz; are, mundua bizitzeko moduz. Edo moduez, pluralean. Ingurunera moldatzeko eta honekin harremanetan jartzeko sistemak dira kulturak. Alegia, gure ekintzek zentzua hartzen duten testuingurua da kultura".

"Elkarrekin bizitzeko Kultura. Hauxe da Kultur Hiriburuak zabaldu duen leloa. Kultura terminoak diferentziarekin, edota "bestearrekin" harreman estua du. Besteengandik aldentzen nauen horrek egiten nau ni, besteengandik aldentzen gaituen horrek egiten gaitu gu. Hala ere, denak dira/gara errealitatearen parte. Berdintzen eta ezberdintzen elementuak aurkitu ditzakegu kultura ezberdinen artean; baita kultura baten barnean ere"(Donostiako Piratak, 2016).



Ordea, zabaltasun eta abstrakzioari ertzak zorrotz zizkion mugimenduak, eta definizioa errealitate dosiaz horditu. Pluralean ari bagara bakarraz beharrean, ezin dugu kulturaz edo kulturez hitz egin boterearen aldagaia kontutan izan gabe.

Kulturaren eremua gizarteko gatazka-gune da, Josu Amezaga (1994) irakasleak adierazi bezala, eta gatazka horretan, klase menderatzaileek beren kultura hedatzen dute menderakuntza finkatu asmoz. Hondeamakinekin batzuetan, Kortxoenean kasu; arautuz jardura oro bestetan; kontrol mekanismo sotilekin gehienetan. Sozietateetan, antolaketa ereduak, balioak, sinesmenak edo portaerak esaterako, etengabeko gatazkan ageri dira. Feminismoa eta patriarkatua bi mundu ulerkera eta biziera kontrajarri direla ez du inork ukatzen, eta gatazka bizian daude. Ez da elkar bizitzeko aukerarik. Libreki eratu eta koordinaturiko taldeen baitan hierarkia oro ezabatzearen praktika, autogestioa alegia, eta kapitalismoa sostengatzen duten diziplina instituzioak bateraezina diren era berean.

Hau da, nagusia den kulturaz bestelako kulturak ere

Badirudi Donostia 2016ren kontra agertzea "kulturaren kontra" aritzearen parekoa dela. Logika sinplista, bai; baina oso zabaldua eta uste baino eraginkorragoa eztabaida publikoa baldintzatzeko.

badira. Izan ere, klase menderatuek, kulturaren bitartez egiten diote aurre menderakuntzari. Kulturaren bitartez, kulturak sortuz, kultura herritarrak edo popularrak. Sozietateko harremanetan mendekotasunean daudenen kulturak ditugu kultura herritarrak (Amezaga, 1994).

Hiztegietako gainontzeko hitzak bezala, kultura hitza bera ere, erabat higatua dago. Eta higaturak hautsia. Sano ondo hautsia. Josu Montero (1998) irakasle eta idazlearen esanak gurera ekarriz, kultura hitza hautsia egonik ere, hitzak ezkututzen duen esanahia edo ideia, ordea, ez da kaltegabekoa ez eta inuzentea. Esana dugu gorago, kultura hitza kategoria unibertsal eta mugiezin bat balitz bezala erabiltzen dugun arren, kultura ez da bat eta bakarra; kultura(k) dira, pluralean. Egoera zehatzen, jendarte ereduaren, harreman sozial eta ekoizpen-harreman jakinen arabera izango da kultura jakin bat. Inguru bakoitzari kultura jakin bat dagokio. Ondorioz, beharrezkoa egiten da izenaren atzetik dagokion izenondoa ezartzea, izena bera erlatibizatzea. Gure kasuan: "kultura kapitalista", "kultura kontsumista", "kultura mediatizatua" eta "kultura mediatikoa", "espekulazioa eta espektakuluaren kultura" osaerak daitezke. Kultura hegemonikoaren adierazleak denak.

Elkarbizitarako tresna gisa definitzen da kultura hiriburutzaren proiektuan. Kultur eredu ezberdinak elkarrekin bizi ahal dira egitasmo honen arabera: "Esango nuke saiatu garela kultur eredu askoren proiektuak egon daitezkeen. Ereduetara mugatzea zaila

da, hemen lan egiteko molde asko ez direlako kultur eredu hegemonikoarenak, baizik bestelakoak" (Paya, 2015).

Eta ez da harrizkoa. Kultura herritarrak menperatuen kulturak izanagatik ere, menderakuntzarekiko harremanean osatzen dira. Eta ondorioz, harremana dagoen heinean, elkartrukea ere badago. Bestela esanda, kultura hegemonikoarekiko gatazkan elkartrukeak suertatzen dira (Amezaga, 1994); kultura nagusi edo menderatzaileak ez baititu beti ezberdintasunak ukatzen. Maiz, eta nagusigoa mantentze aldera, berretsi ere egiten ditu. DSS2016.EU egitasmoaren egitarau anitza ikustea besterik ez dago.

Manuel Delgadok laburbildu zituen ideia hauek denak: "En estas ocasiones todas las instancias con algún tipo de vínculo institucional o empresarial pueden estar convencidas de que es posible obtener algún tipo de ventaja o beneficio, con lo que se impone el principio de que no conviene quedarse fuera del reparto del pastel. Eso vale incluso para sectores críticos, que pueden encontrar una oportunidad para obtener soporte para sus iniciativas. De hecho, va a ser imposible escapar de la gravitación de un evento como el que se prepara: todo lo que se haga el año de la Capitalidad Cultural irá a parar directamente a su agenda, lo quieran o no quienes impulsen esas iniciativas abducidas, por decirlo así."

Hitzen ondoreari tira eginez, "popular" hitzak ere

higatze semantiko eta interesatua pairatu du. Antzina, "popular" edo herrikoia hitzak, "herriak egindakoa" adierazten zuen. Gaur egun, ordea, "popular" edo "pop" hitzekin "herriaren kontsumorako egina" ulertzen dugu. Gaur egun, herria ez da kultura(ren) sortzaile; herria subjektu pasiboa da, kontsumitzailea, ikuslea, erabiltzailea. Kontsumoaren kultura gailendu da. Guzia egina heltzen zaigu, aurrefabrikatua, prest kontsumitua izan dadin. Solasaldiaren izenburuan aurkitzen dugu esandakoaren baieztapena. "Nik uste bateragarriak direla proiektu kulturalaren bidez gai izatea garapen pertsonala ahalbideratzeko eta erakargarriak izateko, baita saltzeko ere" esan zuen Eneko Goia egungo Donostiako alkateak, 2015eko udal hauteskundeetan atarian. Kontsumitzen delako saltzen da kultura. Kultura eta kontsumoa. Edo kontsumitzen den kultura.

Kultura kontsumorako gai bilakatu da. Kulturaren merkantilizazioa eman da, bizitza bera bere osotasunean merkantilizatu dugunez. Bestela esanda, kultura eta sormena ustiatu beharreko baliabide bilakatu dira hirien arteko merkatu globaleko lehian. Argi dio Forum d'Avignon-ek argitaratu zuen "2014 Manifestua: Europar gune sortzaile berri bat" agirian: "Kulturak lagundu egiten du hirien garapen ekonomikoa sustatzen, berrikuntza eta sormen maila areagotu egiten du, eta erabakigarria gertatzen da erakargarri eta lehiakortasun globalari aurre egiteko".

Kapitala eta inbertsoreak erakartzeko baliabide edo amua da kultura. Bereizgarria den hori, tokian tokiko berezitasuna, errazagoa da saltzen (erosia delako da errazagoa saltzen), eta berezitasun nahikorik ez dela ebatzi ezker, berezitasuna sortu eta eraiki egingo da. Herri txikieneko alkatea ere ahalegina egiten ari da bere herrian Guggenheim bat izateko. Herri eta hiri guztiak saiatzen dira handiagoak izaten, erakargarriak izaten. Hitzek eta publizitatez kultura sortzeko, garatzeko, saiatzeko...eraiki diren kultur-azpiegiturak ez ote diren lehiakortasunaren izenean salgaiaren marka puztu eta apaintzeko espazioak, horixe egin beharreko gogoeta. Hona hemen, arestian aipatu hitzen sokari tiraka Eneko Goiak kulturaz eta zehatzean Tabakaleraz diona: "() amesten segitzen dut AHTaren geltokia bertan izatearekin eta autobusen estazioan erabat integratzearekin. Hala gertatuko balitz, baliabide kultural moduan lehiatzeko ahalmen nabarmena emango liokeela iruditzen zait, beste modu batera nekez lortuko lukeen protagonismoa izango luke."

BIBLIOGRAFIA

- AMEZAGA ALBIZU, Josu (1994). Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- AHTren aurkako Donostiako taldea (2014). 2016ko Europako Kultura Hiriburutzat auzitan txostena.
- Berria (2015-11-29) Xabier Paya elkarrizketa: "Jaialdiak izango dira, baina aldatu nahi dena ikusten ez den zerbait da".
- DEBORD, Guy (1967). La société du spectacle.
- Donostiako Piratak (2016). "2016an ere DONOSTIA eta €ULTURA ABORDATU!".
- E. ILLESCAS, Jon (2015). La Dictadura del Videoclip. Industria musical y sueños prefabricados. Barcelona: El Viejo Topo.
- Montero, Josu (1998). "La cultura como instrumento de normalización, inclusión, cohesión y control social". Ediciones E.Z. = E.Z. Argitaraldiak.

Herri txikieneko alkatea ere ahalegina egiten ari da bere herrian Guggenheim bat izateko. Herri eta hiri guztiak saiatzen dira handiagoak izaten, erakargarriak izaten.

egiten da? Kontsumo-gai baldin bada, posible ote kontsumo arduratsurik? Klase menderatzaileak bere kontrola gauzatzen du kultura industriaren bitartez, lehiakortasuna, berehalako hedonismoa eta kontsumismoa sustatuz. Kulturaren bidez klase menderatzaileari onuragarri zaien diskurtsoa ezartzen da. Diskurtso hau, gainera, zentzuduna edo zentzuzko diskurtso bezala aurkeztuko da.

Kontsumoan eta kontsumitzean datza, Jon E. Illescasen (2015) iritzian, gaur eguneko menderakuntzak. Ohiko publizitatearekin galgatu eta gogaiturik agertzen da publikoa, eta ondorioz, "product placement" esaten zaien estrategia ikus-entzunezkoen industria osora hedatu den metodo bilakatu da. Zineman, nahiz telebistan eta bideo klipetan. Espektakulua eta kontsumoa, merkaturia alegia, dominazio sistemaren ikur.

60ko hamarkadaz gerora masa kulturak izan duen bilakaerak baieztatzen du, espektakulua irudikapenaren autonomizatze prozesu gisa hartuz, Guy Debord pentsalariak 1967an egin azterketaren egokitasuna. Inoizko ingurune zatikatu eta barreiatuan, itxurazko bateratze eredu baten erakusgarri da espektakulua. Geroz eta atomizatuago ageri den sozietatean, espektakulua jarrera eta nortasunak bateratzen ditu. Sakabanaketan bateratu, ordea. Irudikapenaren planoa erreparatzen ditu sozietatearen puskak, txatalak; adiskidetze sozialaren irudi (edukiz) hutsa erakutsiz. Espektakulua gertakari honen ezartze erabatekoa da: merkantzia giza-bizitza ororen erdigunean ezartzea, pertsonen arteko harreman eta bizitza beraren merkantilizazio erabatekoa.

"Espektakulua egungo sozietatearen ekoizpen nagusia da" idatzi zuen Debordek (1967). Eta guk krispetekin batera kontsumitzen dugu espektakuluaren kultura.

Batzuek sormenerako eta kultur jarduerak nahiz kultur jarduerekin saiatzeko espazioa ikusten duten lekuan, beste batzuek azpiegitura handiagoeekin eta lehiakortasunarekin lotzen (eta amesten) dute.

Kultura egin egiten da, edo kultura kontsumitu

IKASKUNTZAK BERRESKURATUZ

	Ixiar García	Titila Lizarraga	Jokin Telleria
	Pink Gorilas	CineCCdonostia	KA-Kultura Alternatiboa
	Herri zahar andre berri	Donostiako Creative Commons Nazioarteko Zinemaldia	100KA
	Biarritz	Donostia	Donostia
	2016	2016	2016
	Emakumeak / Kultura / Berdintasuna / Kooperazioa / Sorkuntza	Zinea / Audiobisuala / Creative Commons / Kultura / Kultura askea / Procomuna / Soziopolitika / Ekologia soziala eta politika / Arkitektura eta urbanismoa / Berdintasuna	100KA / KA / Oinarriko Kultura / Kultura alternatiboa / Sarea / Konstelazioa / Elkartasuna / Artea
Zein izan dira esperientzia honetako kide?	DSS2016, Silvia Piris eta Monika plazaola. Sortzaile eta aktoreak Galder Perez eta Ane San Miguel	Campo creativo cero	Oinarriko kultura eta kultura alternatiboa sustatzeko plataforma
Zer sentitu dut?	Jendeak izan zuen jarrerak eta harremanak giro ona eta sentimendu positiboak sortarazi zituen, eta horrek esperientzian zehar gustora egotea ekarri zuen.	Jendeak parte hartu zuela, bai mahai ingurura gonbidatuak zeudenak, eta bai publiko bezala zeudenak ere. Gonbidatuak haien esperientziak konpartitu zituzten, beraz, ekintza guztian zehar giro ona antzeman izan zen.	Jende gehiago proiektua ezagutzen duela nabaritu da, eta hau, KA ren presentzia handitu egin delako dio.
Zergatik izan da esanguratsua niretzat? (Ikaskuntzak)	Ekipiko taldekideak eta pertsona dinamizatzaileen arteko sintonia, eta taldean zegoen aniztasunak lagundu egin du ekintza aberasgarria izatera.	Ekintzan parte hartu duten profesionalen esperientziak eta ekintzan parte hartu duten pertsonen arteko elkar - elikadura ekintza esanguratsua izateko oso onuragarria izan da.	Jende askok KA-ren ezagueraz zuzena izatea. Artistei emandakia lortzea. KA-ren sarea handitu delako, eta 100K, KA, artista eta eragile desberdinak zerbait aporatu dutelako.
Zertan sakondu dut nire ezagutza, aurretiko esperientzia bati dagokionez (alderdi positiboak, negatiboak, neutroak)?	Pertsona desberdinak eskaini dituzten iritzi eta esperientzia desberdinak. Partaideen komunikazioaren arrakasta eta partaidetza gero eta handiagoa izan dela.	Esperientzia hau, lau urteetan zehar antolatatu denez, gero eta jende gehiago esperientzietan parte hartzen dutela, eta komunikazioaren aldetik, gure esperientzia gero eta gehiago ezagutzen dutela esan daiteke.	Aurretiko esperientzia bati dagokionez, artistei eta arteari leku gehiago eman eta esperientzian jende gehiago parte hartzen dutela.
Zer ez litzateke galduta behar etorkizunean jarraitzeko?	Jendeak sortutako giro ona eta parte hartzailea.	Denboran, gure ekintza aurrera jarraitzea, eta orain arte lortu duguna ikusita, hau da, jende gehiago ekintzan parte hartzea.	KA ren presentzia egoten jarraitzea, hau da, KA ren sarea handitzen jarraitzea.
Zerk ez dio lagundu nire ikaskuntzari?	DSS2016ko arduradunak, prozesu bat eraikitzeke ideei argi batekin zetozen, beraz, arazo bat izan zen, zaila zelako esperientzian parte hartzen duten pertsonen perfilak edo jarrerak ikusita haiek duten beharretatik zerbait sortu ahal izatea.	Dohako ekintza bat izanda, ekintzak antolatzeke garaian errekurtsio ekonomikoak lortzeko arazoak izaten ditugu.	Antolaketarako jendea lortzea zaila izan dela, baita ere jendea KA ulertzeko zailtasunak daudela, eta ondorioz plataforma alda emateko zailtasunak ere egon direla.
Lortutako esperientziatik abiatuz, zein eronka planteatzen ditut epe motzera (2tik 6 hilabetera) prozesuan aurrera egiteko?	Jendeak orain arte, esperientzietan parte hartzen jarraitzea, eta jende gehiago animatzea eta jendearen giro ona eta inplikazioa izaten jarraitzea. Kulturari behar duen lekua ematea.	Gurekin lan egin duten sareak mantentzen jarraitzea, hau da, Cristina Enea, Aitak, Ekologistak Martxan, Setem Hegohaitza, Medeak, DSS2016... Esperientzietan gonbidatzen ditugun pertsonak, parte hartzen jarraitzea eta jendeak gure lanean inplikatzeko.	Ekintzak antolatzeke garaian, jende gehiago parte hartzea, KA zer den jendeak ulertzeko asmoarekin lankeeta bat egin eta KA sarean jende gehiago parte izatea.

ARTISAUTZA ETA GIZARTE ERANTZUNKIZUNA

Gabiltza Gipuzkoako Artisanu Biltzarra

Artisautzako sektorea Donostiako Kontsumo Arduratsuko Saretuz Sarean barneratzen da, artisauen tailerrek egiten duten ekarpena eta garatzen duten lana gizartearen aurrean komunikatzeko, sustatzeko eta balioan jartzeko helburuarekin, beraien ekintzaren Enpresa Gizarte Erantzukizunari dagokionez. Era berean, artisautza tailer hauen artean, beraien balio kateari aplikagarri diren gizarte erantzukizuneko jarduerak irizpideak: diseinuan, ekoizpenean, merkaturatzean, komunikazioan, etab.

Artisautza eta gizarte erantzukizuna estuki erlazionatuta dauden bi kontzeptu dira. Artisanu sozial mailan arduratsua da tokiko garapenaren gainean eragin positiboa duelako, gizarte kohesioa sustatzen duelako eta pertsonen eta inguruaren gainean eragin negatiboak gutxitzen dituelako.

Enpresa Gizarte Erantzukizuna kontzeptuak jasotzen dituen alderdiak (ingurumena, kontsumitzailearen eskubideak, lan eskubideak, zuzenbide zibilak, eskubide zibilak, komunitateen eskubideak, herri indigenen eskubideak, eskubide ekonomikoak, kulturalak, ustelkeriaren prebentzioa...), Nazio Batuen giza eskubideen nazioarteko araudian jasota daude portzentaje handi batean, baina gainera, Enpresa Gizarte Erantzukizuna Garapen Jasangarria kontzeptuarekin estuki erlazionatuta dago, egungo giza behar eta espektatibak eta bere ingurune fisiko asetu eta errespetatzen dituen garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bezala definitu daiteke, eta beraien beharrak asetzeko etorkizuneko belaunaldien gaitasunak estutasunean jartzen ez dituen.

Adierazi behar da ere, erantzukizuna existitzen dela nahiz eta enpresen aldetik modu boluntarioan onartua izan ala ez, hain zuzen ere, enpresen ekintzek besteengan eragiten duten ondorioak dituztelako, beraz, gizarte erantzukizunaren irismena enpresa/tailer baten jarduerak baino haratago doa, bere gizarte ospea zaintzeko.

Artisanuak lanbide ugari multzokatzen ditu

Gizarte erantzukizunaren irismena enpresa/tailer baten jarduerak baino haratago doa, bere gizarte ospea zaintzeko.

eta eguneroko bizitzan parte hartzen duen, gure etxebizitzako edo lantokiko edozein objektu, artisau moduan fabrikatu daitekeela esan daiteke.

Artisanu produktuez hitz egiten dugunean,

objektu edo zerbitzu bat ekoizte hutsa baino haratago doa.

Hauetaz ari gara:

» Pertsonen interesak, bizitza erritmoa errespetatzen eta beraien norberaren garapenarekin seguruagoak eta bateragarriagoak diren baldintzetan lan egiten laguntzen duen, barne kudeaketa maila altu bat aurkezten duten artisau enpresa txikiak.

» Tokiko ohitura, jakintza eta kultura suspertzea, mendeetako antzinatasuna duten lanbide tradizionalak kontserbatzen eta erreskatatzen dituztelako. Honek ez du esan nahi, artisautza iraganera atzera egitea denik, aurrerapen teknologikoei eta ezagutzari ez ditu inola ere ukatzen, ezta eboluzioari ere. Artisanuak bera, teknologia berrien berritzeko, berrikuntzako eta aplikazioko ahalmen handi bat duen jarduerak sektore bat da.

» Berdintasun eta justizia baldintzetan oinarritutako merkataritza trukaketaren sustapena.

» Bezeroarekin finkatuta dagoen harreman pertsonalatuak kontsumo arduratsuan eta "gauzak nola egiten diren" hezten laguntzen du.

» Herri eta kultura desberdinen arteko trukaketari ekarpena, tokikoari balio gehiago ematen dion heinean.



» Artisanuak ez da "erabili eta bota" kulturaren lagun. Produktuak iraun dezaten pentsatuta daude, erabilerarekin ez direlako azkar puskatzen eta hondatzen, ezta hain azkar modan pasatzen ere (baliagarriak, originalak, eksklusiboak dira).

» Artisanu-erperiaren bitartez beraien tailerrak ekoizteko prestatuak egoteaz gain, konpontzeko ere prestatuak daude. Konpontzeko gaitasuna artisautzaren funtsezko kategoria bat da.

» Erabiltzen diren materialak oro har naturalak dira eta erraz birziklatzen dira.

» Produktua, ekoizten den inguruko artisau kultura eta tradizioan inspiratzen da, elementu tradizionalak suspertuz, tokiko kulturaren

baloreak transmitituz eta kasu askotan diseinua, materialak... eguneratzen edo birsortzen da, baita produktuen baliagarritasuna ere.

Ondorioz, artisautzan presente daude tokiko kulturekin identifikatzen gaituzten baloreak; jasangarritasunaren, tokiko jakintzaren eta materialen aldeko errespetuaren baloreak barneratzen dituen modu inplizituan eta industrialaren horren aurka agertzen da. Artisanuak bertako herriko pertsonen lana ematen die eta tokiko garapenaren alde egiten du; eskaintza eskaerara erraz egokitzen da, posible den guztietan tokiko materialak erabiltzen ditu, prozesua eta produktua tokiarekin identifikatzen dira... Beste muturrean aurkitzen da, eskulanean kostu txikienean ekoiztea bilatzen duen subkontratazio eta deslokalizazio industria, lan baldintza ezegonkorak eta prekarioak eraginez; gainproduktioa eta soberakinen akumulazio arriskua, galera finantzario eta enplegu galera larriak sortuz; urruneko lurraldeko lehengaiak, askotan atera eta garraio jardueretan kalte nabarmenak eraginez; ekoizpena ez dago tradizioarekin erlazionatuta, ezta historia eta tokiko baliabideekin ere; kultura bateratzeko joera dago...

Egun, gizarteari transmititzeko eta aplikazioa sustatzeko testuinguru egoki batean bizi gara Gizarte Erantzukizuneko irizpideak dituzten artisautzako enpresen/tailerren aldetik (askotan ez dira kontziente praktikatzen ari diren horretaz, ondorioz ez dituzte transmititzen), politika publikoak geroz eta gehiago bideratzen dira gizarte eta ingurumen jasangarritasunera, egunero erosketa arduratsua eta bidezko merkataritza sustatzen duten kultura, aisialdiko eta kontsumoko joerak sortzen direlako hiritarren artean. Aukera aprobeztatu behar da.

- Artisanu produktuak erosi egiten dira, ez dira kontsumitzen. Irauteko eginak daude beraz, ez dute ezer "erosi, erabili, bota" adierazten dutenik, ezta "zaharkitze programatua" ere. Artisanuak erosten dugunean ez dugu dirua gastatzen, beharrezkoak eta iraupenezko ondasunetan inbertitzen dugu. -

"La infatigable sostenibilidad de la artesanía" Ruben Garcia Colsa

KRISI EKOLOGIKOA ETA JASANGARRITASUNERAKO KULTURA

Fundación Cristina Enea Fundazioa

XXI mende hasierako arreta eskatzen ari den gaietako bat, gizadia aurre egiten ari den krisi ekologikoa da, planetan gizakiaren bizitzaren jarraitutasunerako mehatxu larria izanik. Komunitate zientifikoak eta diziplina oso desberdinetatik, bere analisisetan bat egiten dute eta bizitza eusteko Lurraren gaitasuna aldatu dezaketen ingurumeneko eraldaketa multzo baten inguruan behin eta berriz ohartarazten du. Horrez gain, garai geologiko berri batean sartzen ari garela adierazten du, Antropozeno aro berria, aurreko mendeko 50 hamarkadan hasitako garaia eta Alejandro Cearretak, Antropozenoaren gaineko Lan-Taldeko (GTA) zientifikoetako batek, adierazi duen bezala “gizakiak egon diren unetik planetak eragina jasan du, eta zerbait berria bezala esan daiteke, planeta bere natura aldakortasunetik ateratzen ari garela”.

Aurre egin behar diogun aldaketa global honetan hainbat faktorek bat egiten dute: mundu guztiari eragiten dion klima aldaketa, petrolioaren eta oinarriko beste mineralen zenita, bioaniztasunaren galera edo ur geza, basoak, arrantza eta natura ondasuneko beste elementu batzuren agortzea. Kolapso ekologiko hau duela mendeak ari da sortzen. Ekoizteko, kontsumitzeko eta ugaltzeko moduak, azken mendeetan zehar konfiguratutako giza habitatak gure komunitateen jasanezintasunaren gunea dira, Naturaren kosmobisio kolonizatzaile baten eta Planeta osatzen duten baliabide mugatuen erazketa eta ustiapen infinituaren oinordekoak dira eta beste batzuen berritze gaitasunaren haustura dira. Paradigma menderatzaile hau ere krisian sartu da; baloreak, adierazpen moduak eta errepresentazio sinbolikoa, egungo gizartearen eguneroko bilakaera euskarritzen duten pertzepzio eta antolakuntza modu partekatutak “zibilizazio-krisi” dei genezakeen bezala kuestionatzen dira. Ikuspegi honetatik, kultura, giza espeziearen erlazioen eta gizakiak berak naturarekin dituen sistema sozio-ekonomikoen dimentsio global bezala, funtsezko faktore bat da beharrezkoa den trantsizioa geratzeko edo azkartzeko, eredu produktiboen eta habitat jasangarriagoen bidean. Zerbaiten aldeko edo kontrako posizioak, sinesmenak, bizipen emozionalak, kultura osatzen duten giza portaeren eta baloreen adierazpenen manifestazioak dira. Gure gizartean egunero gertatzen diren

ingurumen eragin edo inpaktu askoren zergatia eta sorrera diren kultura eta giza portaerak.

Modu honetan, planetaren egungo egoera sakontasunean lantzea eta bere kontserbazioan erantzukizunak onartzeak, arazoaren dimentsio kulturala kontutan hartzea eskatzen du eta ondorioz erresilientziak, sormena eta aniztasuna, biozentrismoa, ekitatea edo etorkizuneko belaunaldien eskubideak kontutan hartzeari lotutako baloreak eraikitzea eta garatzea.

ETORKIZUNAK ERAIKIZ

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, krisi ekonomiko eta milioika pertsona askoren pobreziaren testuinguru batean, kontsumo kooperatibak eta etxebizitzak sortu ziren, hasiera batean iparramerikar sindikatuek babestutak. Kultura solidarioa eta komunitarioetatik mugimenduak sortzen hasi ziren, kontsumitzeko modua nabarmenduz, eredu bidezkoagoak eta ekitatearen aldeko eredu bidean, egitura ekonomikoak ere eraldatzea posible zela uste zuten, kontsumo kontziente eta kritiko bat garatuz eta balioan jarriz, bidegabekoa zen eta era berean, baliabide harrapakaria zen eredu kapitalista baten aurrean. Geroztik, mugimendu asko eta desberdinak dira bere eguneroko jardueran eta gizarte “industrialaren” analisi kritikoan, gizarte eredu menderatzailearen aurrean espazioen eta alternatiben sorrerako esperientzia desberdinak garatzen dituzte. Gure egunetan, “merkatu sozialei”, “sareak trantsizioan” edo “commons-ari” lotutako

ekimenekin erlazioatutako ekimenak ikustera ematen dira, geroz eta konplexuago, desberdinago eta globalagoa den gizarte batean. Mugimendu eta sare hauek, “existitzen denari” egiten dioten kritika horretan, bizitzaren jasangarritasuna oso egunean dagoen espazioak sortzen eta baloreak bultzatzen dituzte, etorkizuneko belaunaldien eskubideak eta planetaren kontserbazioa kontutan izanik.

Horrez gain, pintura, arte plastikoak, literatura, musika, jokoak, artisautzak, sormenezko espazioak edo “teknologia berrien” erabilera bezalako adierazpen artistikoen garapenak, ez dira sare, mugimendu eta ekimen hauetatik aldera batera dauden ekintzak. Gainera, elkarbizitza moduak, bizitza estiloak edo defendatzen diren postulatuekin bat egiten duten balore eta sinesmen eskala moduak sendotzeko eta esperimentatzeko balio dute.

ARE ALEAK

2008 urtean sortu zenetik, Cristina Enea Fundazioak, ingurumenean eta jasangarritasunean informatu, formatu eta sentsibilizatzeko bere lan horretan, bere programa eta ekintzetan tresna desberdinez hornitzen saiatu da. Tresna horiek komeni den bezala artikulatuz, gure habitataren eta osatzen duten ekosistemen konplexutasuna ulertzea posible egin behar dute, ikuspuntu holistiko, kritiko eta proaktibo bat hartuz.

Jarduera desberdinen bitartez “ingurumen” sentsibilizazioko aukera hauek argitu ditzaketen adibide xume batzuk, adibidez, “Hidrologikak”, “Arkitektura: Film Mintzaira (AFM)” edo “JantziAgain” izena duten proiektuak dira.

Hidrologikak duela urteak sustatzen ari den ekimen bat da, bere helburu nagusia, hirian lur gaineko ur

fluxu nagusia, Urumea, balioan jartzea eta ibaiak lurraldean izan duen eragina ulertzea eta ezagutzea izanik. Jarduera desberdinak antolatzen dituzte: Ibaiaren ibilgutik eta ibaiertzetik ibilaldi gidatuak, ikastaro eta topaketa parte-hartzaileak, sormen literarioak, ikus-entzunezkoak edo musikalak. Hauek guztiak, ibaiarekin eta hirian dagoen balio sozial, kultural eta ingurumen balioarekin dagoen gure erlazio historikoaren “konstrukt” antropologiko eta autokritiko bat harituz doazen, ekintza eta ikuspegi mosaiko oso desberdina osatzen dute.

ALM, Arkitektura: lengoia mintzaira gure garaiko kategoria handietako baten inguruan aztertu nahi duen hitzaldi, proiektio eta tailerren urteko ziklo bat da: Hiria. Migrazioa, ekonomia, laztasuna, desberdinkeria, klima aldaketa... bezalako beste gaietara batera, guztia multzokatzea ezinezkoa izatea bihurtu da, Saskia Sassen-en hitzetan “...ez gara gai, ez dugu gaitasunik gertatzen ari den negatiboa edo ezezko guztia jasotzeko”. Duela urteak programa hau bertako eta nazioarteko pentsalariekin (gizon zein emakumeak) topaketa multzo bat ekoizten ari da –egile hauek beraiek proposatzen dituzten filmen proiektioekin osatzen dira-, hiri-politikei eta lurralde analisi geografikora gerturatze zuhur bat sortzeko asmoz.

Arkitektura eta film mintzairak, film eta jardunaldien analisiaren bitartez, “Europa hartzen” ari diren prozesu ekonomiko eta politiko hauek aztertzea egokia dela azpimarratzen du, baina ez hauek bakarrik, baita prozesu sinbolikoak, antropologikoa eta estetikoak ere. Ikusten denaren eta ikusten ez denaren artean ematen diren aldaketak, irudikatu daitekeena eta ez daitekeen hori zehazten duten aukeren baldintzetan, orainaren edozein analisirako funtsezkoak dira, baita errealitatearen nolabaiteko eraldaketan inspiratutako edozein proiekturako ere.

JantziAgain arropak eta osagarriak trukatu nahi dituzten pertsona horientzat guztientzat topaleku bat bezala sortu zen, baita moda, jostintza, jantziak pertsonalizatu edo ehun-jarduerarekin erlazioatutako beste eskulan eta artearen inguruan ideiak eta ezagutzak partekatzeko ere. Erabilitako arropa edo beste ehun-gaiak begiratzeko dugun modua berriztatzea da, jakintza partekatua eta egite kolektiboaren bitartez. JantziAgain-ek kontsumo arduratsu moduaren aldeko apustu egiten du, hiritarren balore eta portaeren aldaketa bat sustatzeko, objektuei eta erabilitako arropari aukera berri bat emanez. Modu horretan, hondakin batean bihurtu ordez, berriz ere baliabide batean bihurtzen da.



BERTSO SORTA

Antton Fernandez eta Oier Iurramendi

Doinua: Gogoratzen ez

Gaur arratsaldez elkartu gara
Antiguaotarrak Fiare
Geure ingurua begiratzeko
batere mugarik gabe
Hemen emaitzak ikusi
eta oso zoriontsu gaude
Mundua bera bihur dezagun
elkarlanerako sare

Ta sare hori saretzen doa
gorantza doa demagun
Denok dakigu eraldatzea
zein boluntade behar dun
Atsalde hontan, ekimen hontan
alperrik ez gara jardun
Eta guk ere izan nahi dugu
sare horretako lagun

Nahiz beti ez izan
2016aren bermea
Guk ere martxan ipini dugu
sorkuntzarako genea
Berriro ere deskubrituta
gure barruko umea
Arabarrekin okupatuko dugu
Cristina Enea

Legea eta arau-hausteeak
arazo asko dakarte
Ta belarria amalurretik
egon ez dadin aparte
Lagun artean, auzolanean
segi dezagun jo ta ke
Sortu genuen labirintotik
irtetea lortu arte

Nere bizitzan inoiz zalantzak
sortu dizkit generoak
Baina Irantzuk garbi esan dit
gaur ez naizela ero bat
Nahiz eta kezkatu sarri munduan
Haiek duten numeroak
Normalak dira baina hala ere
Maite ditut heteroak

Gizarte honetan leku askotan
Sortu ohi da arazoa
Ta atsaldean ikusi dugu
zein den lehenengo pausua
Esku beretik joan leizkela
mendia eta itsasoa
Denok baitegu zeini emana
eta zeinengandik jasoa

Gaur Altekiok ere ekarri du
bere soluzioa
Gure amonek ondo zekiten
auzolan funtzioa
Lortuz gero iraganaren
ta orainan fusioa
Den iraultzarik indartsuena
da reboluzioa


Inork ez daki atsalde baten
hartuko duen papela
Eta oso garbi ikusi dugu
gure aktore papela
Une batean ikusi dugu
eta ikasiz honela
Normala eta ez-normala
gauza berdinak direla

Txintxo beteta ta kunplituta
izen emate zerrendak
Bakoitzak bere taldean
bete ditu zegozkion prendak
Denon artetik nola sortu den
geldi ezin den kemen bat
ziur gehiago inspiratuko gaituela
afari meriendak

Atsalde hontan jasotakoa
hitzetan nola kalkula
Gutxienean ikasi dugu
norantz zuzendu brujula
Badakizue bihotzetikan
eskertzen dizuegula
Umeak bezain ederki pasa
eta asko ikasi dugula

WWW.MAPASARETUZ.EUS

Gure app-a deskargatu!
¡Descárgate nuestra app!



Gaur egungo ekoizpen eta kontsumo eredua **zalantzan jarri** eta gure kontsumo ohiturak **berriz pentsaraztera** gonbidatzen gaituen Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzaile bat proposatzen dugu.

Zentzu honetan, **hainbat galdera** egin diezaiokegu geure buruari:

. Benetan **nahi** dudan hori **behar** al dut?

. **Nola** lortu dezaket behar dudan hori?

. Eta **nondik** datorren ba al dakit?

. Ba al dakit **nolako baldintzetan**, **non** eta **nork**, egin eta saltzen duen?

. **Sortzeko** edo **konpontzeko** aukerarik ba al dut?

WWW.MAPASARETUZ.EUS



Kultura
Cultura



Berdintasuna
Igualdad



Publikoa
Público



Hezkuntza
Enseñanza



Lokala
Local



Ekonomia Solidarioa
Economía Solidaria



Bidezko Merkataritza
Comercio Justo



Finantza Etikoak
Finanzas Éticas



Artisautza
Artesanía



Trukea
Trueque



Ekologikoa
Ecológico



Berrerabilpena
Reutilización



Saretuz kideak
Participantes de Saretuz



Energia
Energía



Ingurumena
Medioambiente



Software Libre
Software Libre